





TAULEN AURKIBIDEA

1. taula:	Etxebizitzak eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharra, lurralde historikoaren arabera. 2023.....	3
2. taula:	Etxebizitza bat eskuratzeko premia asetzeko zenbatetsitako etxebizitzaren kuantifikazioa, diru-sarrera edo errenta propio erabilgarrien eta lurralde historikoaren arabera. 2023.....	4

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa:	Behar duen lehen etxebizitzaren ezaugarriak eta diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen profila (%). Euskadi. 2023(*).....	6
2. grafikoa:	Aldatzeko beharra duten familien ehunekoa, egoeraren eta beharren arabera. 2023.....	7
3. grafikoa:	Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak, arrazoi nagusiaren arabera. 2023.....	8
4. grafikoa:	Familien ehunekoa, premia motaren eta etxebizitza edukitzeko erregimenaren arabera. 2023	9
5. grafikoa:	Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak, birgaitze motaren arabera. EAE. 2023	10

Informazio gehiago:

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Espezifikoa

Donostia / San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telefono zenbakia: Zuzenean 012; +34-945 01 80 00;

Webgunea: www.euskadi.eus/estadisticas-vivienda

Posta elektronikoa: estadisticas-vivienda@euskadi.eus



Euskadin, 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen ia % 15ek lehen etxebizitza behar du

Eusko Jaurlaritzako *Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 2023ko Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruz* egindako inkestaren arabera, 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen % 14,8k (94.975 pertsona) behar du lehen etxebizitza. Bestalde, adin-talde horretako 367.115 pertsona emantzipatuta daude (% 57,0), eta gainerako % 28,2ak, emantzipatu gabe dagoen arren, ez du premiarik adierazten. Etxebizitza eskuratzeko beharra duten ia 95.000 pertsonak gurasoen, tutoreen edo bestelako senideen etxebizitzetan bizi diren emantzipatu gabeko pertsonen % 34,3 dira (guztira 276.730 pertsona).

Euskadiko etxebizitzak birgaitzeko edo aldatzeko beharrak % 8,2 eta % 8,4 dira, hurrenez hurren

Bestalde, inkesta honek adierazten du EAEko familien % 8,4k **etxebizitza aldatzeko** beharra dutela (77.369 familia); aldiz, familien % 8,2k (75.620 familia) adierazten du beren etxebizitzak **birgaitze**-motaren bat behar duela, bai eraikinaren elementu komunetan,

bai etxebizitzari dagozkion elementuetan, hiru mila eurotik gorako zenbatekoan.

1. taula: Etxebizitzak eskuratzeko, aldatzeko eta birgaitzeko beharra, lurralde historikoaren arabera. 2023

(Balio absolutuak eta ehunekoak)

		2023		Aldakuntza 2021arekiko	
		Kop.	Etxeko guztizkoaren %	GUZTIRA	Tasa (%)
Euskadi	Sarbidea ⁽¹⁾	63.378	% 6,9	5.241	% 9,0
	Aldaketa	77.369	% 8,4	-4.957	-% 6,0
	Birgaitzea	75.620	% 8,2	-12.237	-% 13,9
	Etxeak	919.933	-	18.834	% 2,1
Araba	Sarbidea ⁽¹⁾	7.200	% 5,1	-2.037	-% 22,1
	Aldaketa	11.170	% 8,0	682	% 6,5
	Birgaitzea	9.766	% 7,0	184	% 1,9
	Etxeak	139.876	-	2.646	% 1,9
Bizkaia	Sarbidea ⁽¹⁾	34.360	% 7,1	5.747	% 20,1
	Aldaketa	39.959	% 8,3	-5.267	-% 11,6
	Birgaitzea	39.826	% 8,3	-8.699	-% 17,9
	Etxeak	481.639	-	10.416	% 2,2
Gipuzkoa	Sarbidea ⁽¹⁾	21.818	% 7,3	1.531	% 7,5
	Aldaketa	26.240	% 8,8	-372	-% 1,4
	Birgaitzea	26.028	% 8,7	-3.722	-% 12,5
	Etxeak	298.418	-	5.772	% 2,0

(1) Diru-sarrera edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak bakarrik hartzen dira kontuan.

Iturria: *Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta. 2023. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*



2023an etxebizitza baten beharra zuten 18 eta 44 urte bitarteko 94.975 pertsonetatik 70.012k **diru-sarrera edo errenta propioak** zituzten (adin-talde horretako biztanleriaren % 10,9), eta gainerako 24.962k **ez zuten** diru-sarrera propiorik (% 3,9).

Uste da 86.764 etxebizitza beharko liratekeela premia horri erantzuteko

Uste da 86.764 etxebizitza beharko liratekeela premia horri erantzuteko. Diru-sarrerak edo emantzipatu gabeko errenta propioak dituzten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak etxebizitza eskuratzeko duten

premiari erantzuteko, **Euskadin 63.378 etxebizitza** beharko liratekeela uste da. Kopuru hori **86.764 etxebizitzaraino** igoko litzateke, gaur egun diru-sarrerarik ez duten pertsonak behar dituzten 23.386 etxebizitzak gehituz gero.

2. taula: Etxebizitza bat eskuratzeko premia asetzeko zenbatetsitako etxebizitzen kuantifikazioa, diru-sarrera edo errenta propio erabilgarrien eta lurralde historikoaren arabera. 2023

Etxebizitza kopurua		Diru-sarreraren batekin edo errenta propioekin			Diru-sarrerarik gabe	Premiarekin, guztira
		Diru-sarrera nahikoekin	Diru-sarrera eskasekin edo irregularrekin	Diru-sarrerak guztira		
Guztira, sartzeko premiarekin	Euskadi	17.340	60.177	77.517	25.814	103.331
	Araba	2.092	6.981	9.073	3.629	12.702
	Bizkaia	8.723	33.299	42.022	12.700	54.722
	Gipuzkoa	6.525	19.896	26.421	9.485	35.907
18-44 urteko emantzipatu gabeko pertsonak	Euskadi	12.528	50.850	63.378	23.386	86.764
	Araba	1.558	5.642	7.200	3.389	10.589
	Bizkaia	5.750	28.610	34.360	11.675	46.035
	Gipuzkoa	5.220	16.598	21.818	8.322	30.141
44 urtetik gorako emantzipatu gabeko pertsonak		1.556	2.579	4.135	1.562	5.697
Beste egoera mota batzuk. Sarbide independentearen beharra		3.256	6.748	10.004	866	10.870

Iturria: *Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkesta. 2023. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*



Etxebizitza bat modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsona guztiak kontuan hartuz gero, guztira 103.331 etxebizitza beharko lirateke Euskadin.

2023an, etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsona guztiak aztertzen badira (18-44 urteko emantzipatu gabeko pertsonak eta 44 urtetik gorakoak, etxebizitza modu independentean eskuratzeko beharra duten pertsonekin batera), etxebizitza bat eskuratzeko beharra duten 114.396 pertsona zenbatu dira guztira (horietatik 86.188k diru-sarrera edo errenta propioak dituzte, eta 28.208k diru-sarrerarik ez). Horiek guztiek 103.331 etxebizitza beharko lituzkete; horietatik 77.517 etxebizitza diru-sarrera edo errenta propioak dituzten pertsonen edo familia-taldeei lotuta daude, eta gainerako 25.814 etxebizitzak diru-sarrerarik gabeko pertsonen edo familia-taldeei lotuta daude.

Etxebizitza eskuratzeko beharra duten eta emantzipatu gabe dauden 18 eta 44 urte bitarteko 94.975 pertsonen gain, beharra duten bi tipologia berri identifikatu dira:

- Alde batetik, etxebizitza bat eskuratzeko beharra duten 44 urtetik gorako 5.853 pertsona, gurasoen edo beste senide batzuen etxebizitzetan bizi direnak, eta 5.697 etxebizitza behar dituztenak. Pertsona horietatik 4.292k diru-sarrera edo errenta propioak dituzte eta 4.135 etxebizitza behar dituzte.
- Bestalde, 13.568 pertsona emantzipatu dira eta 10.870 etxebizitza eskuratu behar dituzte modu independentean edo osatzen duten familia-taldearekin bizitzeko. Horietatik 11.883k diru-sarrera edo errenta propioak dituzte eta 10.004 etxebizitza behar dituzte.

2021etik, errenta propioak dituzten 18 eta 44 urte bitarteko emantzipatu gabeko pertsonen lehen etxebizitzaren beharra areagotu dute Euskadin (% 9,0): gora egin du Bizkaian (% 20,1) eta Gipuzkoan (% 7,5); behera, berriz, Araban (-% 22,1).

Araba da, 2023an, emantzipatu gabe dauden eta diru-sarrerak dituzten 18-44 urteko biztanleen artean etxebizitza-premia jaitsi den lurralde bakarra. Arabako kolektibo horretako 8.259 pertsonen 7.200 etxebizitza beharko lituzkete 2023an (duela bi urte baino 2.037 gutxiago), hau da, % 22,1eko jaitsiera; hala ere, kopuru horrek gairik egiten du 2019an identifikatutako beharra (6.302 etxebizitza).

Aitzitik, kolektibo horren beharrak gora egin du, bai Gipuzkoan, bai Bizkaian.

Bizkaia da hazkunderik handiena izan duen lurraldea. 18 eta 44 urte bitarteko 37.643 pertsonak, emantzipatu gabe eta diru-sarrera propioekin, 34.360 etxebizitza beharko lituzkete: 2021ean baino 5.747 etxebizitza gehiago (% 20,1eko igoera erlatiboa).

Gipuzkoan hazkundera neurritsuagoa da, EAEko batez bestekotik hurbilago (% 9,0: 5.241 etxebizitza gehiago). Lurralde horretan, aztertutako kolektiboko 24.109 pertsonak 21.818 etxebizitza beharko lituzkete, hau da, duela bi urte baino 1.531 etxebizitza gehiago (% 7,5).




Diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen antzeko hautua egiten dute alokairuan (% 42) eta jabetzan (% 41,8).


1. grafikoa: Behar duen lehen etxebizitzaren ezaugarriak eta diru-sarrerak edo errenta propioak dituzten eta lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen profila (%). Euskadi. 2023(*).

Beharra duen 1. Etxebizitzaren ezaugarriak


Baldintza



Azalera erabilgarria



Jabetza




1. etxebizitza eskuratzeko beharra duten pertsonen profila


Adina




Sexua



Ikasketa maila



Jarduerarekin harremana



(*) % 100era iristeko falta den gainerakoa Ez daki/Ez du erantzuten 'da.

Iturria: Etxebizitza Beharrei eta Eskareri buruzko Inkesta. 2023. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.



Lehen etxebizitza behar duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen % 76,1ek etxebizitza berria edo erabilia aukeratuko luke, eta soilik pertsonen % 8,5ek nahiago luke etxebizitza berria izatea eta % 3,4k erabilitakoa (gainerako % 12ak ed/ee).

Etxebizitzaren tamainari dagokionez, ia % 70ek 75m² gainditzen ez dituzten etxebizitzak behar dituzte: % 32,0k 60 m² arteko etxebizitzak nahiago dituzte, eta % 36,9k 61 m² eta 75 m² bitartekoak.

Edukitze-erregimenari dagokionez, jabetzaren (% 41,8) eta alokairuaren (% 42,0) arteko lehentasunak antzekoak dira.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten kolektibo horretan nagusi dira 25-34 urteko pertsonak (% 53,5), gizonak (% 57,7) eta unibertsitate-ikasketak dituztenak (% 45,3) edo lanbide-ikasketak dituztenak (% 31,2). % 89 soldatapeko landunak dira, eta lan finkoa (% 51,8) da nagusi aldi baterakoaren aldean (% 37,1).

Etxebizitza aldatzeko beharra % 6 murriztu da azken bi urteetan


EAEko familien artean etxebizitza aldatzeko beharrak 2021eko joerarekin jarraitzen du, eta berriz ere behera egin du, 2023an, ehunekotan. 2023an, Euskadin 77.369 etxeen unitatek aitortu zuten premia hori (erkidegoko familien % 8,4k). 2021ean baino 4.957 familia gutxiago daude, eta horrek esan nahi du % 6ko beherakada izan dela.

Etxebizitza aldatu behar duten familien % 62 pasatxok behar objektiboa dute.

2023an etxebizitza aldatzeko beharra adierazi duten familien artean, % 62,4k adierazi du aldaketarako premia objektiboa duela; aldiz, epe labur edo ertainean etxetik aldatzeari dagokionez, % 37,6k adierazi du

ez duela behar objektiborik, baina baloratzen ari dira.

2. grafikoa: Aldatzeko beharra duten familien ehunekoa, egoeraren eta beharren arabera. 2023



Iturria: *Etxebizitza Beharrei eta Eskarari buruzko Inkesta. 2023. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*



Bizkaia da, termino erlatiboetan, aldatzeko behar objektiboa duten etxe gehien dituen lurraldea: % 68

Hiru lurralde historikoetan ikusten da etxebizitza aldatzeko behar objektiboaren ehuneko handiagoak daudela aldatzeko aukeraren alde egiten duten familien artean.

Bizkaiko etxeen unitateak dira behar objektiboaren proportzio handiena aitortzen dutenak (% 68,3), eta horien atzetik gipuzkoarrak daude (% 57,7); hirugarren tokian Arabako etxeen unitatean daude (% 52,2).

Etxebizitzaz aldatu behar dutela dioten familien % 31k justifikatzen du egungo etxebizitzaren tamaina desegokiagatik.


Etxebizitza aldatu behar duten familien artean, okupatzen duten etxebizitzaren tamaina desegokiak azaltzen du premia horren % 31,0 (% 28,9 tamaina txikiarekin lotuta dago, eta % 2,1 handiegia izateagatik).

Etxebizitzaren egoera txarra (% 13,7) edo etxebizitzaren irisgarritasunaren hobekuntza (% 13,4), ehuneko ia berdinekin, bigarren eta hirugarren aukera dira ("beste arrazoi batzuk" aukeraren % 13,8 kontuan hartzen ez bada).

Nabarmentzekoa da, halaber, jabetzako etxebizitza bat nahiago izatea (% 9,1) edo alokairu merkeagoa nahi izatea (% 8,4). Bi premia horiek nagusiki alokairu-erregimeneko etxeen unitateekin lotuta daude.

Gainerako aukerak % 8tik behera daude.

3. grafikoa: Etxebizitza aldatzeko beharra duten familiak, arrazoi nagusiaren arabera. 2023



Iturria: *Etxebizitza Beharrei eta Eskareri buruzko Inkesta. 2023. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*




Alokairu-erregimeneko familien % 30ek etxebizitza aldatzeko beharra du..

Euskadiko alokairu-erregimeneko etxebizitzak dira jarduketak gehien eskatzen dituztenak etxebizitzarekin lotutako premiei dagokienez; izan ere, % 34,3k aldatzeko (% 30,3) edo birgaitzeko (% 4,0) beharra adierazten dute.

Jabetza-erregimen horretako etxebizitzaren artean **aldatzeko beharra** deigarria baino deigarriagoa da: Euskadin aldatzeko batez besteko beharra baino ia ehuneko 22 puntu handiagoa da (% 8,4).

4. grafikoa: Familien ehunekoa, premia motaren eta etxebizitza edukitzeko erregimenaren arabera. 2023



Iturria: *Etxebizitza Beharrei eta Eskareri buruzko Inkesta. 2023. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Salla. Eusko Jaurlaritza.*

Birgaitzeak eragin handiagoa du herentzia edo dohaintza bidez jasotako etxebizitzaren artean (% 15,2). Halaber, nolabaiteko garrantzia hartzen du jabetzako etxebizitzaren artean, ordaintzeke dauden ordainketekin (% 8,8) edo erabat ordainduta (% 8,6); bi kasuetan EAEko batez bestekoaren gainetik. (% 8,2).



Etxebizitza nagusia birgaitzeko beharra % 14 jaitsi da azken bi urteetan

2023an, etxebizitzak berritzeko beharrak 75.620 etxeri eragiten die, 2021ean baino 12.237 familia gutxiago (-% 13,9). 2023an erregistratutako zifra Euskadiko etxeko enunitate guztien % 8,2 da


Ia eraberritzeen erdiak etxebizitzaren barrualdeari bakarrik eragingo lioke, eta ia laurdenak eraikinaren elementu komunei soilik.

Etxebizitzek behar duten birgaitze-obraen tipologiari dagokionez, % 49,4 etxebizitzaren barrualdea hobetzeko beharrei dagokie.

Aurrekoaren erdia den portzentaje batean kokatzen dira birgaitzea egin behar duten etxebizitzak kokatuta dauden eraikinaren zati komunetan (% 24,8).

Beste laurdenek (% 25,8) adierazi dute birgaitzea behar dutela, bai etxebizitzaren barruan, bai eraikinaren eremu komunetan.

5. grafikoa: Etxebizitza birgaitzeko beharra duten familiak, birgaitze motaren arabera. EAE. 2023



Iturria: *Etxebizitza Beharrei eta Eskareri buruzko Inkesta. 2023. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eusko Jaurlaritza.*